Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala

Boletín Oficial de Gipuzkoa

2016ko abuztuaren 18a, osteguna

157

Jueves, a 18 de agosto de 2016

GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO ADMINISTRAZIOA

2

ADMINISTRACIÓN DEL TERRITORIO HISTÓRICO DE GIPUZKOA

## GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

## INGURUMENEKO ETA OBRA HIDRAULIKOETAKO DEPARTAMENTUA

*Amezketako plangintzako arau subsidiarioen aldaketari buruzko ingurumeneko adierazpen estrategikoa, Aralarko Papelera hirigintzako 2. esku-hartze areari dagokionez.*

Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako departamentuko gaien kudeaketaz arduratzen den foru diputatuak (F.D.E.-158/2016), 2016ko abuztuaren 12ko datarekin, ondoren argitaratzen den Foru Agindua eman zuen:

2015eko apirilaren 14ko idatzi baten bidez, Aralarko Papelera Hirigintzako 2. Esku-hartze Areari buruzko Arau Subsidiarioen Aldaketa puntuala izapidetzen hasteko bere asmoa jakinarazi zion Amezketako Udalak Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusiari eta area horren ingurumen mailako ebaluazioa egiteko prozedura martxan jartzea eskatu zuen. Eskaera horrekin batera hasierako dokumentu estrategiko bat ere aurkeztu zen, Ingurumen Ebaluazioaren inguruko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 18.01 artikuluan eta ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duen urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 8.1. eta 8.2. artikuluetan galdatutako edukiekin.

2016ko urtarrilaren 13an, Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusiak Alkantzeko Dokumentua eman zuen, Aldaketaren ingurumeneko azterketa estrategikoa idazteko, eta bertan aurrez egindako galdera eta kontsultei erantzuten zitzaien, plana lantzeko kontuan hartu beharreko ingurumeneko irizpide estrategikoak markatzen ziren, proposamenen ingurumen mailako aurreneko balorazio bat egiten zen, ingurumenari buruz kontuan hartu beharreko funtsezko alderdiak identifikatu eta ingurumeneko azterketa estrategiko horrek lortu beharko lukeen edukia eta alkantzua zehazteaz gain.

2016ko ekainaren 1ean, Aldaketaren hasierako onarpenaren berri ematen dio Amezketako Udalak Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusiari eta onartutako dokumentuak igortzen dizkio; dokumentu horien artean daude, besteak beste, ingurumeneko azterketa estrategikoa, paisaian integratzeko azterketa eta Aldaketaren hirigintzako dokumentua.

Ondoren, 2016ko abuztuaren 3an, Amezketako Udalak espediente administratiboaren kopia bidaltzen du, eta horrekin batera Ingurumen Ebaluazioaren inguruko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 25. artikuluan aurreikusitako ingurumeneko adierazpen estrategikoa –211/2012 Dekretuaren 13. artikuluan ingurumeneko memoria gisa ere izendatua– aldarrikatzea eskatzen du.

Urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 6. artikuluan eta otsailaren 27ko 3/1998 Legearen 44.2 artikuluan xedatutakoari jarraituz, eta kontuan hartuz era berean ekainaren 24ko 22/2016 Foru Dekretua, plana onartzeko funtsezko eskumena Gipuzkoako Foru Aldundiarena den kasuetan, ingurumen txostena luzatzeko eskumena izango duen organoa Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Zuzendaritza Nagusia izango da.

## DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

## DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE Y OBRAS HIDRÁULICAS

*Declaración ambiental estratégica de la modificación de las Normas Subsidiarias de planeamiento de Amezketa relativa al AIU 2 Aralarko Papelera.*

La diputada foral encargada del despacho del departamento de Medio Ambiente y Obras Hidráulicas (D.F.R.-158/2016) ha dictado, con fecha de 12 de agosto de 2016 la Orden Foral que a continuación se publica:

Mediante escrito del 14 de abril de 2015, el Ayuntamiento de Amezketa comunicó a la Dirección General de Medio Ambiente de la Diputación Foral de Gipuzkoa el inicio de la tramitación del la Modificación puntual de la Normas Subsidiarias relativa al A.I.U. 2 Aralarko Papelera y solicitó el inicio del procedimiento para su evaluación ambiental. Acompañaba la solicitud un documento inicial estratégico con los contenidos exigidos en el articulo 18.01 de la Ley 21/2013 de la Ley, de 9 de diciembre, de Evaluación Ambiental y en los artículos 8.1. y 8.2. del Decreto 211/2012, de 16 de octubre, por el que se regula el procedimiento de evaluación ambiental estratégica.

El 13 de enero de 2016, la Dirección General de Medio Ambiente emitió el Documento de Alcance para la redacción del estudio ambiental estratégico de la Modificación, en el que se daba traslado de las respuestas a las consultas efectuadas, se señalaban los criterios ambientales estratégicos a tener en cuenta en la elaboración del plan, se realizaba una primera valoración ambiental de las propuestas, se identificaban los aspectos ambientales fundamentales a considerar y se especificaba el contenido y alcance que debía tener el estudio ambiental estratégico.

El 1 de junio de 2016, el Ayuntamiento de Amezketa comunica a la Dirección General de Medio Ambiente la aprobación inicial de la Modificación y remite los documentos aprobados, que incluyen el estudio ambiental estratégico, un estudio de integración paisajística y el documento urbanístico de la Modificación.

Posteriormente, con fecha 3 de agosto de 2016, el Ayuntamiento de Amezketa remite una copia del expediente administrativo y solicita la emisión de la declaración ambiental estratégica prevista en artículo 25 de la Ley 21/2013, de 9 de diciembre, de evaluación ambiental, también denominada memoria ambiental en el artículo 13 del Decreto 211/2012.

Conforme a lo dispuesto en el artículo 6 del Decreto 211/2012 de 16 de octubre, y el artículo 44.2 de la Ley 3/1998, de 27 de febrero, y teniendo en cuenta el Decreto Foral 22/2016, de 24 de junio, en aquellos casos en los que la competencia sustantiva para la aprobación de un plan resida en la Diputación Foral de Gipuzkoa, el órgano competente para la emisión de la memoria ambiental lo constituye el Departamento de Medio Ambiente y Obras Hidráulicas.

EK\CV GAO-I-2016-05967

Aurretik azaldutako guztiagatik, behin aurkeztutako dokumentazio teknikoa aztertu ondoren eta planen eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duen urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 13. artikuluan eta Ingurumen Ebaluazioaren inguruko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 25. artikuluan aurreikusitakoa betetze aldera, Amezketako Plangintzako Arau Subsidiarioen Aldaketari buruzko Ingurumeneko Adierazpen Estrategikoa, Aralarko Papelera Hirigintzako 2. Esku-hartze Areari buruzkoa, ematen da, jarraian jasotzen diren terminoen arabera.

1. ARAU SUBSIDIARIOEN ALDAKETAREN ETA EGINDAKO INGURUMEN EBALUAZIOAREN INGURUMEN MAILAKO BALORAZIOA

*1.1. Arau Subsidiarioen Aldaketaren deskripzioa.*

Amezketako Udalak planteatzen duen Arau Subsidiarioen Aldaketa puntuala Aralarko Papelera Hirigintzako 2. Esku-hartze Area bezala ezagutzen den eremuari dagokio. Eremu horrek 5 hektareako azalera du, gutxi gorabehera, eta bertan kokatzen da Papel Aralar S.A. enpresaren produkzioko planta. Jarduerak Ingurumen Baimen Integratua lortu zuen 2008ko apirilaren 25ean, eta une honetan baimen hori eguneratzen dihardu.

Enpresak aldatu egin du, ordea, bere jarduera, eta paper-zati busti biodegradadarriak egiteko paperaren fabrikaziora aldatu da berrikitan. Horretarako, paper-makina berri bat instalatu da bertan, eta baita makina hori hartzeko eraikin bat jaso ere, bigarren makina bat hartzeko edukiera duena, hain zuzen ere. Produkzioa aldatzeko proiektuak biltegiratzeko gaitasuna gehitzea eskatzen du ezinbestean eta baita beste erreforma batzuk egitea ere. Beharrezkoa da, horregatik, eremuaren hirigintzako antolamendua aldatzea, izan ere makina berria kokatua dagoeneko eraikina eraikitzeak erabat ahitu baitu indarrean dagoen hirigintzako plangintzan ezarria zegoen eraikigarritasuna.

Horregatik guztiagatik Arau Subsidiarioen Aldaketa puntuala planteatzen da, jarduera industriala handitzeak dakartzan hurrengo premiei erantzun ahal izateko:

1. Biltegi automatiko bat eraikitzeko premia, produktu bukatuentzat.

2. Lehengaien biltegiak eduki dezakeen bolumenaren gehikuntza aurreikustea.

3. Eraikigarritasuneko gerakin bat ezartzea, etorkizunean egin beharrekoak izan daitezkeen handitze edo birmoldaketa txikientzat.

Antolamenduko hainbat aukera posible aztertu ondoren, hasierako onarpen dokumentuak eremua birmugatzea planteatzen du, eta horrela Aralarko Papelera Hirigintzako 2. Esku-hartze Area 52.870 m$^2$-ko azalera edukitzera pasatuko litzateke, indarrean dauden arau subsidiarioetan islatutako azalera 45.665 m$^2$-koa den bitartean. Handitzea fabrikaren mendebaldera kokatua dagoen mendi-hegalerantz izango litzateke gehienbat, aurreikusitako garapen berriak ahalbidetzeko eta babes-zerrenda bat sortzeko jarduera industrialari dagokionez.

Era berean, partzelaren eraikigarritasuna 9.200 m$^2$-tan gehitzen da, eraikuntza berriko eraikinak jaso edo gaur egun daudenak birmoldaltzeko. Eta nondik sortzen da zifra hori? Produktu bukatuentzat etorkizuneko biltegi automatikoak dakartzan premiak aztertu dira, batetik, gaur egun lehengaiak biltegiratzeko dagoen gaitasuna hartu da kontuan, bestetik, eta planta altu baten eraikuntza eta etorkizunean gerta daitezkeen birmoldaketako hainbat eragiketa ere begietsi dira kalkulu hori egiteko orduan.

Aldaketak eraikinen altuera maximoa gehitzen du, sestra gaineko gaur egungo 10 metrotik 25 metrora pasatuz biltegiratzeko eraikinen kasuan eta 15 metrora produkzioko eraikinen kasuan, baina altuera handiagoak ere ahalbidetuz, arrazoi funtzionalak edo produkziokoak direla medio behar bezala justifikatuak baleude betiere.

Por todo lo anteriormente expuesto, examinada la documentación técnica presentada y en cumplimiento de lo previsto en el artículo 13 del Decreto 211/2012, de 16 de octubre, por el que se regula el procedimiento de evaluación ambiental estratégica de planes y programas y en el artículo 25 de la Ley 21/2013, de 9 de diciembre, de evaluación ambiental, se emite la Declaración Ambiental Estratégica de la Modificación de las Normas Subsidiarias de Planeamiento de Amezketa relativa la AIU 2 Aralarko Papelera en los términos que se recogen a continuación.

1. VALORACIÓN AMBIENTAL DE LA MODIFICACIÓN DE NNSS Y DE LA EVALUACIÓN AMBIENTAL REALIZADA

*1.1. Descripción de la Modificación de NNSS.*

La Modificación puntual de las Normas Subsidiarias que plantea el Ayuntamiento de Amezketa se refiere al área denominada como A.I.U. 2 Aralarko Papelera, que con una superficie aproximada de 5 has, alberga la planta productiva de la empresa Papel Aralar S.A. La actividad cuenta con Autorización Ambiental Integrada con fecha de 25 de abril de 2008 y actualmente está procediendo a su actualización.

La empresa ha modificado recientemente su actividad, pasando a fabricar papel para la producción de toallitas húmedas biodegradables, para lo que ha instalado una nueva máquina de papel y construido un edificio para albergarla, con capacidad para acoger una segunda máquina. El proyecto de transformación productiva requiere un aumento de la capacidad de almacenaje y otras reformas, para lo que es necesario modificar la ordenación urbanística del área, ya que la construcción del edificio que alberga la nueva máquina ha agotado la edificabilidad establecida por el planeamiento urbanístico vigente.

Por tanto, la Modificación puntual de las NNSS se plantea para dar respuesta a las siguientes necesidades de ampliación de la actividad industrial:

1. Posibilitar la construcción de un almacén automático para producto terminado.

2. Prever el incremento de volumen del almacén de materia prima.

3. Establecer un remanente de edificabilidad para pequeñas ampliaciones o remodelaciones que pueda ser necesario ejecutar en el futuro.

Después de haber analizado diversas alternativas de ordenación, el documento de aprobación inicial plantea redelimitar el ámbito, de modo que el A.I.U. 2 Aralarko Papelera pase a tener una superficie de 52.870 m$^2$, cuando la superficie reflejada en las NN.SS. vigentes es de 45.665 m$^2$. La ampliación se produce principalmente hacia la ladera situada al oeste de la fábrica, para posibilitar los nuevos desarrollos previstos y para generar una banda de protección en relación a la actividad industrial.

Asimismo, se incrementa la edificabilidad de la parcela en 9.200 m$^2$ para edificios de nueva construcción o remodelación de los actuales. Esta cifra surge de un análisis de las necesidades para el futuro almacén automático para producto terminado, de la ampliación de la capacidad de volumen del almacén actual de materia prima, incluyendo la construcción de una planta alta y como remanente para diversas operaciones de remodelación que puedan darse en el futuro.

La Modificación incrementa la altura máxima de las edificaciones, de los 10 metros actuales a los 25 metros sobre rasante para los edificios de almacenaje y de 15 m. para los edificios productivos, posibilitando alturas superiores siempre que estén debidamente justificadas por razones funcionales y productivas.

EK\CV GAO-I-2016-05967

*1.2. Arau Subsidiarioen Aldaketa proposamenean ingurumeneko alderdien integrazioaren balorazioa.*

Hirigune batetik nahiko gertu eta paisaia kalitate handiko ingurune batean kokatuak egonik, ikusmenerako intrusio-maila eta ingurumen-eragina izateko gaitasun handia duten instalazio industrialak zabaldu eta handitzea da Aldaketaren helburua, berez natura eremu babestua den Aralar Parke Naturalaren eta Kontserbazio Bereziko Eremuaren barruan kokatuak daudenak hain zuzen ere. Horrela, bada, ingurumeneko hainbat osagaik erabat baldintzatzen dutenez eremuaren hirigintza antolamendua, osagai horiek oso kontuan hartu beharko dira bai Aldaketa horretan bertan eta baita aldaketaren zahaztapenak garatuko dituzten proiektuetan ere.

Xehetasun hori kontuan hartuz, Aldaketak hasieratik bertatik eduki ditu begi-bistan ingurumenarekin lotutako alderdiak oro har eta eraikin industrialen handitzeak paisaiaren gain eduki dezakeen eragina murriztea bereziki. Puntu horri dagokionez, nabarmentzeko modukoa da alderdi horiek guztiak kontuan hartzea eta eraikinek paisaiaren gain eduki dezaketen eragina murriztea izatea jarduera handitzeak ekar ditzakeen premia berriei erantzuna emango dieten antolamenduko aukerak planteatu eta baloratzean garrantzirik gehien duten osagaiak. Era horretan, enpresaren beharrizanei erantzuna eman arren, Amezketako hiriguneko edo haraneko beste leku batzuetako ikusizko kalitatearen gain eragin handia sortzen zuten beste aukera batzuk hasieratik baztertu dira. Azkenean hautatutako aukera da, hain zuzen ere, enpresak ekonomikoki bideragarritzat jotzen dituen alternatiben artean ingurumenean eraginik txikiena duena.

Aurrekoarekin batera, eta paisaiaren gaineko eragina gutxitu eta eraikinen ahalik eta integrazio bisualik handiena lortzeko asmoarekin, Ingurumeneko Azterketa Estrategikoaz (IAEaz) gain paisaiaren integrazioko azterketa bat ere landu da, eta bertan instalazioak integratzeko eta mimetizatzeko irizpideak eta neurriak jasotzen dira, aurrera begira bai eremuaren hirigintzako antolamenduan eta baita hortik eratorritako zehaztapenek garatuko dituzten eraikuntzako eta hirigintzako proiektuetan ere onartuko direnak.

Paisaiaren integrazioko azterketak pabilioiak diseinatzeko aukera desberdinak aztertzen ditu, fatxadarako lau tratamendu-aukera diferente baloratuz, eta azterketa egin ostean 1. alternatiba esaten zaiona hautatzen du. Alternatiba horrek aurrefabrikatutako panel arinen bidez garatutako fatxadaren irtenbidea proposatzen du eraikin bien kasurako, akabera metaliko matea emanez bi eraikinei. Produktu bukatuaren eraikinerako, aldiz, kromatikoki mistoa den fatxada baten irtenbidea garatzea proposatzen du, eta horren barruan bereizten dira beheko gorputza batetik, eta irudi korporatiboa bere baitan hartzen duen bloke batek koroatutako beste osagai bat erremate moduan. Lehengaien eraikinerako, azkenik, ildo bertsuko irtenbidea planteatzen da, erremate moduko osagai batek koroatua kasu honetan ere.

Irtenbide hori jotzen da Ingurumeneko Azterketa Estrategikoan aukerarik arrazoizkoena bezala, baina hala ere panelen diseinua optimizatzen jarraitu beharra dago, pabiloien integrazio ahalik eta hoberena lortzeko.

Alkantzuko Dokumentuan eskatzen zen bezala, biltegiratzeko pabiloien altuera murrizteko aukera baloratu da, baina aukera hori baztertua geratu da, izan ere Azterketaren arabera paisaiaren gaineko eraginean izango liratekeen hobekuntzak hautemanezinak baitira kasik, eta aukera horrek berarekin daraman biltegiratzeko gaitasunaren murrizketak gaitasun hori beste eraikin batzuetan birsortu beharra ekarriko bailuke.

Jarduera industrialak berak airearen, uraren, lurzoruaren eta biztanleriaren gain eragindako inpaktuak paisaiaren gain eragindako inpaktuak baino garrantzi txikiagokotzat hartu dira, baina dena den beti hartu behar da kontuan ezen erabilgarria den espazio murritzak eta bideragarriak diren aukera eskasek baldintzatzen dituztela alderdi horietan funtsezko hobekuntzak

*1.2. Valoración de la integración de los aspectos ambientales en la propuesta de Modificación de las NNSS.*

La Modificación tiene por objeto permitir la ampliación de unas instalaciones industriales con un elevado potencial de intrusión visual e impacto ambiental en las inmediaciones de un núcleo urbano y un entorno de elevada calidad paisajística, incluido en un espacio natural protegido como es el Parque Natural y ZEC Aralar. Por tanto, la ordenación urbanística del ámbito está fuertemente condicionada por aspectos ambientales, que deben ser tenidos en cuenta, tanto el la propia Modificación como en los proyectos que desarrollen sus determinaciones.

Teniendo en cuenta esta circunstancia, la Modificación ha considerado desde un principio los aspectos ambientales y, en especial, la reducción del impacto paisajístico de la ampliación de las edificaciones industriales. A este respecto, es de destacar que se hayan tenido en cuenta estos aspectos y que la reducción del impacto paisajístico de los edificios haya sido uno de los principales factores considerados a la hora de plantear y valorar alternativas de ordenación que den respuesta a las necesidades de ampliación de la actividad. De este modo, desde un principio se han descartado alternativas que, dando respuesta a las necesidades de la empresa, producían un fuerte impacto sobre la calidad visual del núcleo de Amezketa o sobre otros enclaves del valle. La alternativa finalmente seleccionada constituye la de menor impacto ambiental de entre las alternativas que la empresa considera como económicamente viables.

Asimismo, con objeto de minimizar el impacto sobre el paisaje y tratar de lograr una mayor integración visual de las edificaciones, junto con el Estudio Ambiental Estratégico (EAE) se ha elaborado un estudio de integración paisajística, donde se recogen criterios y medidas de integración y mimetización de las instalaciones, que se adoptarán, tanto en la ordenación urbanística del ámbito, como en los proyectos de edificación y urbanización que desarrollen sus determinaciones.

El estudio de integración paisajística analiza distintas alternativas de diseño de los pabellones, valorando cuatro opciones de tratamiento de fachada y concluye seleccionando la denominada alternativa 1, que propone para ambos edificios una solución de fachada desarrollada mediante paneles prefabricados ligeros con acabado metálico mate. Para el edificio de producto terminado propone desarrollar una solución de fachada cromáticamente mixta, diferenciando un cuerpo inferior diferenciado y rematado por un elemento en la coronación en el que se integra la imagen corporativa. Para el edificio de materia prima plantea una solución en una línea similar con un elemento de remate en la coronación.

Dicha solución es considerada en el Estudio Ambiental Estratégico como la alternativa más razonable, si bien conviene continuar optimizando el diseño de los paneles para lograr una mejor integración de los pabellones.

Tal y como se solicitaba en el Documento de Alcance, se ha valorado la posibilidad de reducir la altura de los pabellones de almacenaje, si bien esa opción queda descartada, ya que, según el Estudio, las mejoras en el impacto paisajístico son prácticamente inapreciables y la reducción de la capacidad de almacenaje que ello supone implicaría la necesidad de generar esta capacidad en otros edificios.

Los impactos generados por la propia actividad industrial sobre el aire, el agua, el suelo y sobre la población se han considerado en menor medida que los paisajísticos, si bien hay que tener en cuenta que el limitado espacio disponible y las escasas opciones viables condicionan las oportunidades de mejora sustancial de estos aspectos desde la ordenación pormenorizada

EK\CV GAO-I-2016-05967

lortzeko aukerak, eremuaren antolamendu xehatutik abiatuz betiere. IAE azterketak Ingurumen Baimen Integratuaren mailara igortzen ditu eragin horien balorazioa eta zuzenketa.

*1.3. Planak Natura 2000 Sarean izan ditzakeen ondorioen ebaluazioa.*

Aldaketak antolatutako eremua Natura 2000 sarearen barruan aurkitzen den Aralar Kontserbazio Bereziko Zonan (KBZ) dago kokatua (ES2120011). Eta gaur egun eremu horretako lurzoru ia osoa erabat urbanizatua dagoen arren, produktu bukatua biltegiratzeko eraikin berriak urbanizatu gabeko lurzoru azalera txiki bat hartuko luke KBZren barruan.

Aldaketak, beraz, Natura 2000 eremuari eragiten dio eta ez dauka zuzeneko harremanik eremuaren kudeaketarekin, eta ez da beharrezkoa edo ezinbestekoa berorrentzat; horregatik, abenduaren 13ko Natur Ondareari eta Biodibertsitateari buruzko 42/2007 Legearen 46. artikuluari jarraituz, eremuaren gain izan ditzakeen ondorioak behar bezala ebaluatu beharra dago.

Ondorio horietarako, Aldaketaren Ingurumeneko Azterketa Estrategikoak badu ebaluazio hori burutzeko atal berezi bat. «Habitatei buruzko 92/43/CE zuzentarauaren 6. artikuluko 3 eta 4 atalburuetako xedapenen inguruko gida metodologikoak» ezarritako irizpide eta lerro nagusien arabera egingo da ebaluazioa.

IAEan egindako ebaluazioaren arabera, Eusko Jaurlaritzak Altitude txikiko sega-larre pobre bezala kartografiatutako azalera txiki bati (0,25 ha guztira) eragingo lioke hautatutako alternatibak (UE 6510 kodea duen batasunaren intereseko habitata), eta azalera horrek habitat horretan kartografiatutako azalera osoaren %0,036 besterik ez du hartzen, Aralarko KBZren barruan. Hala ere, IAEk zera dio gainera, landa-azterketak erakusten duenez, azalera hori habitataren barruko mugako zona oso alteratu bati dagokiola, eta horregatik berorren gain eragindako inpaktua moderatua izango litzatekeela, eta ez lukeela arriskuan jarriko KBZren barruan bere kontserbazio-egoera, ezta berorri lotuak dauden espezie populazioen biziraupena ere.

Aralar Kontserbazio Bereziko Zona (KBZ) izendatzeko informazio ekologikoa, kontserbazioko helburuak, kontserbazio-arauak eta jarraipeneko programa biltzen dituen dokumentuak (ES2120011) adierazten duen bezala, larre bat sega-larre bezala kartografiatu izanak ez du esan nahi Altitude txikiko sega-larre pobreen (UE 6510 kodea) intereseko habitataren ezaugarriak dauzkanik, ezta gutxiagorik ere, gisa horretan inbentariatuak izandako larreetako batzuk segako larreak izateaz gain Cynosurus cristatus larre-belardiak ere aurkitzen baitira horietan, eta horrek erabilera intentsiboagoa eskatzen du, ereinaldi gehiagorekin eta minda-ongarriztatze ugariekin, flora-aniztasuna murriztuz, eta ez daude Habitaten Zuzentarauan jasoak.

Beraz, ezin esan daiteke Aldaketak zuzenean eragiten diola batasuneko intereseko habitat bati KBZren barruan, zeren eta arestian esan den bezala, eragindako eremuak habitat horretako mugako zona oso alteratu bat besterik ez bailuke osatuko, Ingurumeneko azterketa estrategikoak (IAEk) frogatzen duenez. Hala ere, bere barruan habitat hori hartzeko bokazioa duen gune bat desagertuko balitz, bai eragingo lioke, neurri oso txikian bada ere, KBZren araudiak ezartzen duen 3.3. Helburu Operatiboa. «Besterik ezean, altitude txikiko sega-larre pobreen 250 ha mantentzea» lortzeko asmoari. Horregatik, komenigarria izango litzateke KBZren kontserbazioko helburuak betetzen lagunduko lukeen neurri osagarriren bat ere edukitzea Aldaketak bere arautegian, aipatutako kalte hori konpentsatzeko.

Amaitzeko, IAEan egindako ebaluazioak dioenez eremuko kudeaketan funtsezkoak diren gainerako osagaiek ez lukete inolako eraginik jasango, bestelako habitatak (basoak, larreak eta belar-formazioak) ez bailirateke erasango, eragina gako espezieen (espezie errupikola edo harkaiztarren eta kiropteroen) gainean izango bailitzateke, eragin zeharkakoa eta intentsitate murritzekoa gainera.

del ámbito. El EAE remite la valoración y corrección de estos impactos a la Autorización Ambiental Integrada.

*1.3. Evaluación de las repercusiones del plan en la Red Natura 2000.*

El ámbito ordenado por la Modificación se encuentra incluido en la Zona Especial de Conservación (ZEC) Aralar (ES2120011), perteneciente a la Red Natura 2000. Si bien casi la totalidad del ámbito se encuentra actualmente urbanizado, el nuevo edificio de almacenaje de producto terminado ocuparía una pequeña superficie de suelo no urbanizado dentro de la ZEC.

La Modificación afecta, por tanto, al espacio Natura 2000 y no tiene relación directa con la gestión del lugar, ni es necesario para la misma, por lo que, conforme al artículo 46 de la Ley 42/2007, de 13 de diciembre, del Patrimonio Natural y de la Biodiversidad, se debe someter a una adecuada evaluación de sus repercusiones sobre el espacio.

A estos efectos, el Estudio Ambiental Estratégico de la Modificación cuenta con un apartado específico donde se realiza dicha evaluación. La evaluación se efectúa conforme a las directrices de la «Guía metodológica sobre disposiciones de los apartados 3 y 4 del artículo 6 de la directiva sobre hábitats 92/43/CE».

Según la evaluación realizada en el EAE, la alternativa seleccionada afectaría a un pequeña superficie (0,25 ha) cartografiada por el Gobierno Vasco como Prado pobres de siega de baja altitud (hábitat de interés comunitario CódUE 6510), lo que supone el 0,036% de la totalidad de la superficie cartografiada de dicho hábitat en la ZEC de Aralar. Sin embargo, el EAE prosigue señalando que el análisis de campo muestra que dicha superficie se corresponde con una zona límite y muy alterada de dicho hábitat, por lo que el impacto producido sobre el mismo sería, por tanto, moderado y no pondría en riesgo su estado de conservación dentro de la ZEC, ni la supervivencia de las poblaciones de especies ligadas a la misma.

Tal y como señala el Documento de información ecológica, objetivos de conservación, normas de conservación y programa de seguimiento para la designación de la ZEC Aralar (ES2120011), que un prado se haya cartografiado como prado de siega no significa que presente las características del habita de interés Prados pobres de siega de baja altitud (CódUE 6510), ya que parte de los prados inventariados como tales son prados de siega y diente de Cynosurus cristatus, que tienen un manejo más intensivo, con siembras y abonados de purín que reduce la diversidad florística y que no están incluidos en la Directiva Hábitats.

Por tanto, no se puede concluir que la Modificación afecte directamente a un hábitat de interés comunitario dentro de la ZEC, ya que, tal y como se ha mencionado, el EAE afirma que el espacio afectado constituiría una zona límite y muy alterada de dicho hábitat. Sin embargo, al eliminar un enclave con vocación de albergar dicho hábitat, sí que afectaría, aunque mínimamente, a la consecución del Objetivo Operativo 3.3. «Mantener al menos 250 ha de Prados pobres de siega de baja altitud» que establece de la normativa de la ZEC, por lo que sería conveniente que la Modificación incluyese alguna medida adicional que contribuya al cumplimiento de los objetivos de conservación del ZEC para compensar dicha afección.

La evaluación realizada en el EAE concluye que no se verían comprometidos el resto de los elementos clave de la gestión del lugar, al no verse afectados otros hábitats (bosques, pastizales y formaciones herbosas) y ser la afección sobre las especies clave (especies rupícolas y quirópteros) indirecta y de carácter reducido.

EK\CV GAO-I-2016-05967

Beste alde batetik, Azterketak azaltzen duenez, Aralarko akuifero karstiko garrantzitsuak ez du inolako ondorio negatiborik jasango, eremua akuiferoaren periferian baitago kokatua, eta horri lotutako zaurgarritasuna oso maila baxukoa baita.

Beraz, Aldaketan aurreikusitako jarduketak, gako osagaiak eta KBZren kontserbazioko helburuak hartzen badira kontuan, ondorio moduan esan daiteke ez dela gertatuko batasunaren intereseko habitat eta espezieen kontserbazio-egoera edo KBZren funtzionalitate ekologikoa aldatuko lukeen eragin esanguratsurik.

*1.4. Ebaluazio prozesuaren eta Ingurumeneko Azterketa Estrategikoaren analisia.*

Aldaketak badu ingurumen mailako ebaluazio estrategiko arrunta eta, beraz, baita Ingurumeneko Azterketa Estrategiko bat ere. Ingurumen Ebaluazioaren inguruko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen IV. Eranskinean eskatutako egitura eta edukiak dauzka azterketak, eta baita planen eta programen ingurumeneko ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duen urriaren 16ko 211/2012 Dekretuak ingurumen iraunkortasuneko txostenentzat eskatzen dituenak ere.

Era berean, eta orokorrean esanda, bai Aldaketaren hirigintzako dokumentuak eta baita IAEk berak ere ondo baino hobeto integratu dituzte Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusiak Alkantzuko Dokumentuan eskatutako gidalerroak, azterketak eta edukiak. Horrela, Aldaketa idazterakoan ingurumeneko helburu estrategikoak eta iraunkortasuneko irizpideak onartu dira, eta Alkantzuko Dokumentuan adierazitako ingurumenaren arloko funtsezko alderdiak hartu dira kontuan.

IAE azterketaren barruan ondorengoak aurkituko ditugu: Aldaketaren ezaugarrien deskripzio bat, beste plan eta programa batzuekiko interakzioaren analisia eta baita Aldaketak eta bere hurbileko inguruneak eragindalo eremuan ingurumenak gaur egun duen egoeraren deskripzioa ere. Horrez gain, atal berezi bat eskaintzen da Aralarko Natura 2000 lekuak izan dezakeen afekzio posiblea aztertzeko ere. IAEk antolamenduko aukera posibleen azterketa bat ere eskaintzen du, eta nabarmentzeko modukoa da ebaluazioko prozedurak irauten duen bitartean etorkizuneko pabiloiek paisaiaren gain eduki dezaketen eragina murriztuko duten irtenbideak bilatzeko egindako ahalegina, horixe baita ebaluatutako plana egikaritzetik ateratzen den inpaktu nagusia.

Egindako inpaktuen identifikazioa eta balorazioa nahikoa da Aldaketak ekarriko dituen eragin nagusien tamaina eta garrantzia tipifikatu eta estimatzeko, aurreikus daitezkeen inpaktu jakin batzuen karakterizazioan (produktu bukatuaren pabiloia eraikitzeko beharrezkoak diren lur-mugimenduetatik datozenetan, esate baterako edo emisio kutsatzaileen deskripzioa eta jarduerak sor ditzakeen molestia posibleak eta egiten ari den handitzea dela medio jarduera horretan gerta daitezkeen aldaketetan) eskasia edo hutsuneren bat edo beste dauzkan arren.

Eraikuntza eta ustiapeneko faseetarako neurri babesle nahiz zuzentzaileen multzo batek osatzen du Ingurumeneko Azterketa Estrategikoak bere baitan hartzen dituen ingurumeneko integrazio neurriak, aurreko fasean identifikatutako inpaktuak prebenitu eta zuzentzera bideratuak daudenak. Prebentzioko eta zuzenketako neurriak ingurumenaren eta paisaiaren arloko edo kultur ondarea balioztatzeko beste jarduketa konpentsatzaile batzuekin osatzen dira. Proposatutako neurriak egokiak eta nahikoak dira, oro har, espero diren ingurumeneko inpaktu garrantzitsuenak arintzeko. Paisaia eraginaren kasuan, alderdi hori zuzentzeak zailtasun handiagoak eskaintzen dituenez, eraikuntzako proiektuetan txertatzeko irtenbideak bilatzen jarraitzea komeni da, azken emaitza optimizatu asmoz.

Azkenik, IAEk badu Aldaketaren eraginak gainbegiratzeko programa bat ere. Aipatutako Ingurumena Zaintzeko Programa (IZP) hori behar bezala garatua aurkitzen da bere alderdirik gehienei dagokienez, baina hala ere osagaietako batzuk xehetasun-maila handiagoarekin karakterizatu beharko lirateke, jarrai-

Por otra parte, el Estudio señala que no se verá afectado negativamente el estado del importante acuífero kárstico de Aralar, al situarse el ámbito en la zona periferia del mismo y con una vulnerabilidad asociada muy baja.

Por tanto, teniendo en cuenta las actuaciones previstas en la Modificación, los elementos clave y los objetivos de conservación de la ZEC, se puede concluir que no se van a producir efectos significativos que alteren el estado de conservación de los hábitats y especies de interés comunitario, ni la funcionalidad ecológica de la ZEC.

*1.4. Análisis del proceso de evaluación y del Estudio Ambiental Estratégico.*

La Modificación está sometida a una evaluación ambiental estratégica ordinaria y cuenta, por tanto, con un Estudio Ambiental Estratégico, que presenta la estructura y los contenidos requeridos en el anexo IV de la Ley 21/2013, de 9 de diciembre de evaluación ambiental y los que exige el Decreto 211/2012, de 16 de octubre, por el que se regula el procedimiento de evaluación ambiental estratégica de planes y programas, para los informes de sostenibilidad ambiental.

Asimismo, en líneas generales, tanto los documentos urbanísticos de la Modificación como el EAE han integrado las directrices, análisis y contenidos solicitados en el Documento de Alcance por la Dirección General de Medio Ambiente. De este modo, en la redacción de la Modificación se han asumido los objetivos ambiéntales estratégicos y los criterios de sostenibilidad y se han tenido en cuenta los aspectos ambientales fundamentales señalados en el Documento de Alcance.

El EAE cuenta con una descripción de las características de la Modificación, un análisis de la interacción con otros planes y programas y una descripción de la situación actual del medio ambiente en el área afectada por la Modificación y su entorno inmediato. Asimismo, desarrolla un apartado específico para analizar la posible afección al lugar Natura 2000 de Aralar. El EAE aporta un análisis de alternativas de ordenación y es de destacar el esfuerzo realizado a lo largo del procedimiento de evaluación la busque de opciones que reduzcan el impacto paisajístico de los futuros pabellones, principal impacto resultante de la ejecución del plan evaluado.

La identificación y valoración de impactos realizada es suficiente para tipificar y estimar la magnitud de los principales efectos que producirá la Modificación, si bien presenta alguna carencias en la caracterización de ciertos impactos previsibles, como los derivados de los movimientos de tierras necesarios para la construcción del pabellón de producto terminado o la descripción de las emisiones contaminantes y las posibles molestias que pueda causar la actividad y su variación como consecuencia de la ampliación que se está acometiendo.

Las medidas de integración ambiental que incorpora el EAE, se componen de un conjunto de medidas protectoras y correctoras para las fases de construcción y explotación, donde se trata de prevenir y corregir los impactos identificados en la fase anterior. Las medidas de prevención y corrección se complementan con algunas actuaciones compensatorias de carácter ambiental y paisajístico y de puesta en valor del patrimonio cultural. Las medidas propuestas son, en general, adecuadas y suficientes para atenuar los principales impactos ambiéntales esperados. En el caso del impacto paisajístico, cuya corrección completa presenta mayores dificultades, conviene continuar buscando soluciones para su incorporación a los proyectos de edificación, de modo que se optimice el resultado final.

Finalmente, el EAE incluye un programa de supervisión de los efectos de la Modificación. Dicho Programa de Vigilancia Ambiental (PVA), se encuentra correctamente desarrollado en la mayoría de sus aspectos, si bien debe caracterizar con un mayor grado de detalle algunos de sus elementos, como las res-

EK\CV GAO-I-2016-05967

peneko lan jakin batzuk egikaritu eta finantzatzeko erantzukizunak esaterako eta, horrez gain, hobekuntzak egin beharko lirateke jarraipeneko adierazle batzuen hautaketan.

Ingurumeneko azterketa estrategikoa (IAE) Planean aurreikusitako eraikin berrien paisaia integrazioko azterketa berezi batekin osatu da, Alkantzuko Dokumentuan ezarritako eskakizuei erantzuna emanez era horretan.

*1.5. Kontsulten emaitzen balorazioa, eta zer-nolako onarpen-maila izan duten gerora kontsulta horiek.*

Alkantzuko Dokumentua lantzeko egindako kontsulta-fasea dela medio, honako erantzunak jaso ziren:

— Eusko Jaurlaritzako Osasun Saileko Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritzaren iritziz, Aldaketak ez zekarren ingurumen mailako inpaktuaren azterketa egiteko orduan osasun publikoarentzat kontuan hartzeko modukoak izango liratekeen eraginik, proiektuaren ingurumen inguruneari erasan ziezaieketenak albo batera utziz.

— IHOBEk, bere aldetik, adierazi zuen bazirela partzela batzuk historian zehar jarduera potentzialki kutsatzaileak jasan izan dituztenak eta, beraz, etorkizuneko erabiltzaileentzat edo/eta ingurumenarentzat arriskuren bat ekar dezaketenak. Horregatik, kokagune horietan inolako jarduketari ekin aurretik beharrezkoa litzateke lurzoruaren kalitateari buruzko ikerketa bat egin dadin eskatzea.

— Eusko Jaurlaritzako Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren Zuzendaritzak proiektuak Aralarko Parke Naturalari eta Batasunaren Intereseko Lekuari (BIL) egin ziezaiokeen kaltea azpimarratu zuen, eta ingurumeneko azterketak Aralarko BILari eraginik ekar ote ziezaiokeen baloratzeko eta, horrela behar izanez gero, ebaluazio egokia bideratzeko premia aldarrikatu zituen.

— Eusko Jaurlaritzako Kultur Ondareari buruzko Zuzendaritzak, bere aldetik, zera adierazi zuen: igorritako dokumentazioa eta Kultur Ondarearen Zentroak zeukan informazio guztia berrikusi ondoren, Aralarko Papeleraren Ataria hartu zela inbentariatua izateko proposamena jaso zuen osagai moduan eta, beraz, horren gaineko eragin kritikoak saihestu beharko lirateke, eta afekzioren bat gertatuz gero, osagaiaren kontserbazio egokia bermatuko luketen babeseko neurriak aurreikustea gomendatzen zuen.

— Mendiak eta Habitatak Kudeatzeko Zerbitzuak, hori baita Aralarko Parke Naturalaren kudeaketaz arduratzen den organo eskuduna, adierazten du hasierako dokumentuan proposatutakoa dela alternatiba edo aukerarik arrazoizkoena, eta bere ikuspegitik ez dagoela inolako eragozpenik plantaren handitzelanak aurrera eramateko, baldin eta plangintzako Arau Subsidiarioak betetzen badira eta lanak aurkeztutako txostenak ezarritako moduan egiten badira.

Aldaketa eta baita berorren IAEa ere lantzerakoan oso kontuan hartu dira erakunde desberdinek aipatutako oharrak eta xehetasunak. Horrela, IHOBEren eskakizunari jarraituz, hirigintzako araudiak potentzialki kutsatuak bezala inbentariatuak izan diren lurzoruak jasotzen ditu antolatutako eremuaren barruan, eta lurzoru horien inguruan dagoen araudia betetzeko premia adierazten du, horren aplikaziotik eratorritako obligazioak oso modu orokorrean ezarriak dauden arren (eta horrexegatik, arauen erreferentzia hori eguneratu egin beharko litzateke).

Horrez gain, IAEk badu Aralarko BILari kalterik edo afekziorik sor dakiokeen baloratzeko atal berezi bat. Ebaluazio horren bidez ondorioztatu ahal izan den bezala, Aralarko gaur egungo Kontserbazio Bereziko Zonaren funtzionalitate ekologikoak eta kontserbazioko helburuek jasan ditzaketen eraginak ez dirudite oso esanguratsuak.

Beste alde batetik, Aralarko Papeleraren Ataria birgaitu eta balioztatzea aurreikusten da Aldaketan, eta ildo horretatik, hirigintzako araudiak bere gidalerro eta irizpideen artean Aralarko

ponsabilidades de ejecución y financiación de ciertas las labores de seguimiento y requiere mejoras en la selección de varios de los indiciadores de seguimiento.

El EAE se ha completado con un estudio específico de integración paisajística de las nuevas edificaciones previstas en el Plan. Dando respuesta al requerimiento realizado en el Documento de Alcance.

*1.5. Valoración del resultado de las consultas y sobre cómo éstas se han tomado en consideración.*

A través de la fase de consultas efectuadas para la elaboración del Documento de Alcance, se recibieron las siguientes respuestas:

— La Delegación Territorial de Gipuzkoa del Departamento de Sanidad del Gobierno Vasco señalaba que la Modificación no presenta impactos de consideración para la salud pública que deban ser tenidos en cuenta a la hora de realizar el estudio de impacto ambiental, al margen de los que puedan afectar al entorno ambiental del proyecto.

— IHOBE por su parte, advertía de la existencia de parcelas que han soportado históricamente actividades potencialmente contaminantes y que, por lo tanto, pueden suponer un riesgo para los futuros usuarios y/o el medio ambiente. Con carácter previo a cualquier actuación sobre estos emplazamientos sería necesario exigir la realización de una investigación de la calidad del suelo.

— La Dirección de Medio Natural y Planificación Ambiental del Gobierno Vasco subrayaba la afección del proyecto al Parque Natural y Lugar de Interés Comunitario de Aralar y la necesidad de que el estudio ambiental estratégico valore si pueden generase afecciones al LIC de Aralar y, en su caso, proceder a una adecuada evaluación.

— La Dirección de Patrimonio Cultural del Gobierno Vasco, por su parte, constataba que, revisada la documentación remitida y la información con la que cuenta el Centro de Patrimonio Cultural, se localiza la Portería de la Papelera de Aralar, como elemento que cuenta con propuesta de inventariado, por lo que se deberían evitar afecciones críticas y recomienda que, en caso de afecciones se prevean medidas de protección que garantice su adecuada conservación.

— El Servicio de Montes y Gestión de Hábitats, como órgano responsable de la gestión del Parque Natural de Aralar, señala que la alternativa más razonable es la propuesta en el documento de inicio y que, desde su punto de vista, no se aprecia ningún inconveniente para se lleve a cabo la ampliación de la planta, siempre que se encuentre regulada por la Normas Subsidiarias de planeamiento y se realice en los términos descritos en el informe presentado.

En la elaboración de la Modificación y de su EAE se han tenido en consideración los aspectos señalados por las distintas entidades. De este modo, atendiendo al requerimiento de IHOBE, la normativa urbanística recoge la existencia, dentro del ámbito ordenado, de suelos inventariados como potencialmente contaminados y señala la necesidad de cumplir la normativa existente al respecto, si bien las obligaciones derivadas de su aplicación se recogen de manera genérica y la referencia normativa requiere ser actualizada.

Asimismo, el EAE cuenta con un apartado específico para valorar si pueden generase afecciones al LIC de Aralar. A través de dicha evaluación se concluye que las afecciones sobre los objetivos de conservación y a la funcionalidad ecológica de la actual ZEC de Aralar no serán significativas.

Por otra parte, se ha previsto en la Modificación la rehabilitación y puesta en valor de la Portería de la Papelera de Aralar y su normativa urbanística establece, entre sus directrices, la

EK\CV GAO-I-2016-05967

paper-fabrikaren Atariaren eraikina babestea ezartzen du, Kultura Ondareko elementu gisa inbentariatua izateko proposatua izan baita, Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondareari buruzko Zuzendaritzak eskatutakoari erantzunez.

Eta azkenik, Ingurumen Ebaluazioaren inguruko 21/2013 Legearen 21 eta 22. artikuluak eta 211/2012 Dekretuaren 12. artikulua betetzeko, Udaletxeak jendaurrean erakutsi ditu 45 egunez Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren (HAPO) hasierako onarpen dokumentua, eta baita administrazio eta erakunde desberdinei egindako kontsultarena ere, aurrez Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Zuzendaritzaren aldetik kontsultatuak izandakoak, eta ez da inolako alegaziorik egon.

Amezketako Udalak ez du beharrezkotzat jo herritarren parte hartzeko prozedura bati ekitea, herritarrentzako saio irekiak antolatuz Aldaketaren edukiak azaltzeko; izan ere dokumentuaren alkantzua laburra baita, eta landutako dibulgazioko materialak urri samarrak. Puntu honi dagokionez, azpimarratu beharra dago ezen Aldaketak zuzenean eragiten dion lurraldearen azalera mugatua den arren, herriko biztanleen eguneroko paisaiaren gain duen eragina zuzena eta garrantzi handikoa dela, eta horregatik komenigarria izango litzateke bertako biztanleek parte-hartze aktiboa edukitzea erabakiak hartzeko uneetan, eta batez ere eraikinak diseinatzeko alternatibak hautatzeko prozesuetan.

*1.6. Alkantzuko Dokumentua luzatu ostean egindako aldaketen balorazioa, ingurumenaren ikuspegitik.*

Arau Subsidiarioen Aldaketaren hasierako onarpen dokumentuak barruan hartzen du Aralarko Hirigintzako 2. Esku-hartze Arearen hirigintzako eremuaren doikuntza bat, hasierako eskaeran jasotakoari begira. Eta doikuntza horrek gaur egungo eskolako partzelaren mugapena aldatzea dakar bararekin. Hirigintzako 2. Esku-hartze Arearentzat proposatutako araudi partikularrean ere doikuntzak sartzen dira, Amezketako Udalaren eta Papelera Aralar S.A. enpresaren artean egindako lanaren ondorioz. Aldaketa horiek guztiek ez dituzte modu esanguratsuan aldatzen espero diren ingurumeneko inpaktuak ezta horiek zuzentzeko beharrezkoak diren ingurumen integrazioko neurriak ere.

## 2. INPAKTU ESANGURATSUEN AURREIKUSPENA

Aldaketan jasotako jarduketa desberdinak egikaritzetik espero daitezkeen ingurumeneko inpaktu nagusiak identifikatzen ditu Ingurumen Azterketa Estrategikoaren 9. atalak, eta horrez gain eraikuntzako fasean, batetik, eta ustiapeneko fasean, bestetik, gertatuko direnak bereizten ditu.

Atal horrek ez ditu aztertzen jarduera industrialak eragindako inpaktuak, eta jarduera horren handitzeak ekarri du ondorioz Aldaketa, zeren eta IAEk adierazten duen bezala, inpaktu horiek Ingurumen Baimen Integratuaren (IBIren) bidez eta horren Ingurumena Zaintzeko Programaren bidez konponduak izan baitira, eta ez da pentsatzen berriro Azterketan errepikatzea beharrezkoa izango denik.

Amaitzeko, IAEk dio ezen Aldaketan aurreikusitako jarduketen ondorioz, hamaika funtsezko osagai erasanak gertatuko direla: airea, kalitate akustikoa eta luminikoa, geologia eta geomorfologia, lurzorua, azaleko nahiz lurpeko hidrologia, fauna, landare-estalkia, paisaia eta ingurune soziala. Osagai horien gain eragindako inpaktuen multzotik IAE azterketak «moderatutzat» jotzen ditu sei, izanik gainerakoak «bateragarriak» edo «onuragarriak». Inpaktu «moderatuen» artean gehienak eraikuntzako fasean gertatuko lirateke, izan ere ustiapeneko fasean paisaiaren gain izandako inpaktuak soilik jasotzen baitu kalifikazio hori.

Eraikuntzako fasean gertatutako inpaktuez harago eta jarduera industrialak berak sorraraz ditzakeen inpaktuez harago, hirigintzako eta lurralde mailako plangintzaren ikuspegitik, ingu-

protección del edificio de la Portería de la Papelera de Aralar, propuesto para ser inventariado como Patrimonio Cultural, dando respuesta a lo solicitado por Dirección de Patrimonio Cultural del Gobierno Vasco.

Por otra parte, en cumplimiento de los artículos 21 y 22 de la Ley 21/2013 de evaluación ambiental y el artículo 12 del Decreto 211/2012, el Ayuntamiento ha sometido el documento de aprobación inicial del PGOU, durante 45 días, al trámite de información pública, así como de consulta a las administraciones y entidades, que habían sido anteriormente consultadas por la Dirección de Medio Ambiente y Obras Hidráulicas, sin que se hayan producido alegaciones.

El Ayuntamiento de Amezketa no ha considerado necesario abordar un procedimiento de participación pública con sesiones específicas abiertas al público para explicar los contenidos de la Modificación, debido al limitado alcance del documento y los materiales divulgativos elaborados. A este respecto, hay que señalar que, a pesar de lo limitado del alcance de la Modificación en cuanto a superficie territorial directamente afectada, tiene una influencia directa e importante sobre el paisaje cotidiano de los habitantes del pueblo, por lo que convendría hacer partícipes a sus habitantes en la toma de decisiones, en especial en cuanto a la selección de alternativas de diseño de las edificaciones.

*1.6. Valoración de los cambios realizados posteriormente a la emisión del Documento de Alcance, desde la perspectiva ambiental.*

El documento de aprobación inicial de la Modificación de NNSS incluye un reajuste del ámbito urbanístico del A.I.U. 2 respecto al recogido en la solicitud de inicio, que supone también una modificación en la delimitación de la parcela escolar actual. También se introducen ajustes en la normativa particular propuesta para el A.I.U. 2 como parte del proceso de trabajo realizado entre el Ayuntamiento de Amezketa y Papelera Aralar S.A. Dichos cambios no modifican sustancialmente los impactos ambientales esperados ni las medidas de integración ambiental necesarias para corregirlos.

## 2. PREVISIÓN DE LOS IMPACTOS SIGNIFICATIVOS

El apartado 9 del Estudio Ambiental Estratégico identifica los principales impactos ambientales esperables de la ejecución de las actuaciones recogidas en la Modificación, diferenciando los que se prevén producir en la fase de construcción y en la fase de explotación.

Dicho apartado no analiza los impactos generados por la actividad industrial cuya ampliación motiva la Modificación, ya que, según señala el EAE, dichos impactos han sido resueltos por medio de la AAI y su programa de Vigilancia Ambiental, y se estima que no es preciso su repetición en la Estudio.

El EAE concluye que como consecuencia de las actuaciones previstas en la Modificación serán afectados once elementos ambientales: el aire, la calidad acústica y la lumínica, la geología y la geomorfología, el suelo, la hidrología superficial y subterránea, la fauna, la cubierta vegetal el paisaje y el medio social. Del conjunto de impactos producidos sobre estos elementos, el EAE califica seis como «moderados», siendo el resto «compatibles» o «beneficiosos». La mayor parte de los impactos «moderados» se producirían durante la fase de construcción, ya que únicamente recibe dicha calificación durante la fase de explotación el impacto sobre el paisaje.

Más allá de los impactos producidos durante la fase de construcción y los que pueda generar la propia actividad industrial, desde el punto de vista de la planificación urbana y territorial, los

rumeneko inpakturik esanguratsuenak paisaiaren alterazioa eta jarduera handitzetik eratorritako trafiko astunaren gehikuntzarekin lotuak daudenak izango dira, seguruenik.

Aldaketaren barruan begietsitako eraikuntzako jarduketek paisaiaren gain izan dezaketen eragina oso garrantzitsua izan daiteke. Eragin hori arindu edo moteldu egiten da, hein batean, zeren eta eraikin berriak izaera industriala izango duen hurbileko ingurune batean kokatuko baitira, baina eragin hori areagotu egiten da, beste alde batetik, interes paisajistiko handia duen ikusmeneko arro batean baitago kokatua eta, batez ere, Amezketako hiri ingurunetik hurbil dagoenez bertako biztanleen eguneroko paisaiari erasaten diolako.

IAE azterketaren ustez, kamioien trafikoa gehitu egingo da, gaur egungo 40/eguneko kopurutik 64/eguneko kopururaino, jarduera industriala handitzearen ondorioz, eta horrek % 60ko gehikuntza suposatzen du. Gehikuntza hori hirigune txiki baten giroan gertatzen da, eta trafiko astuneko bestelako fluxu garrantzitsurik ez duen errepide batean gainera, eta beraz eragindako inpaktuak oso esanguratsuak izan daitezke, maila akustikoen gainean eta trafikoaren arintasun edo jarioaren gainean gertatutakoak bereziki.

Antolatutako eremuaren zati handi batean uholdeak gertatzeko dagoen arrisku handia da Aldaketaren jarduketak baldintzatzen dituzten ingurumeneko beste alderdietako bat. Eta eraikin berriak uholdeak izateko arriskurik handieneko zonetan kokatzen ez diren arren, oso kontuan hartu beharreko arazoa da hori, pertsonen babeserako bezala baita kutsatzaileen barreiaduratik eratorritako ingurumeneko arriskuak saihesteko ere.

3. PLANGINTZAREN EDO PROGRAMAREN PROPOSAMENARI ERANTSI BEHAR ZAIZKION INGURUMEN INTEGRAZIOKO NEURRIAK

Aralarko Papelera Hirigintzako 2. Esku-hartze Areari buruzko plangintzako Arau Subsidiarioen Aldaketak, hala nola baita bere Ingurumeneko Azterketa Estrategikoak ere, atal honetan deskribatzen diren prebentzioko eta konpentsazioko neurriak barneratu beharko dituzte. Neurri horien multzo osoa HAPOa osatzen duten dokumentu eta agirien (Memoria, Plano, etab.en) dagozkien ataletan integratuko dira. Era berean, planen eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duen urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 13. artikulua betetze aldera, integrazio hori nola egin den islatuko duen dokumentu bat prestatu eta onartu beharko da, jarraian Ingurumeneko Zuzendaritza honetara igortzeko.

1. Aralarko Papelera Hirigintzako 2. Esku-hartze Arean proposatutako hirigintzako araudia aldatu egin beharko da, hurrengo alderdiotan:

a. Aralar-2 eremuko hirigintzako fitxaren 6.2. atalak berariaz aipatu beharko du ezen, Ingurumeneko Azterketa Estrategikoan aurreikusitako neurri zuzentzaile, babesle eta konpentsatzaile guztiak, indarrean dagoen ingurumeneko arautegian eta Ingurumen Baimen Integratuan jasotako zehaztapenak betetzeaz gain, Ingurumeneko Adierazpen Estrategiko honetan ezartzen direnak ere bete beharko direla.

b. Aralarko Papelera Hirigintzako 2. Esku-hartze Arean proposatutako hirigintzako araudiaren hirigintzako antolamendu xehatuaren xedapenek zehaztu beharko dute ezen 25 metrotik gorako altuera duten eraikinak salbuespeneko izaera moduan bakarrik onartu ahal izango direla, baina aldez aurretik justifikatuz paisaiaren gaineko inpaktuak ez direla modu esanguratsuan gehituko.

2. Eraikuntzako proiektuak, hala nola obra osagarrien proiektuak ere, horietako bakoitzarentzat aplikatzeko modukoak diren ingurumeneko neurriak jaso eta integratu beharko dituzte beren aurrekontuetan. Aipatutako neurrien artean, ondorengoak sartuko lirateke:

a. Proiektuetako bakoitzak eraikuntzako eta eraisketako lanetan sortutako hondakinak kudeatzeko azterketa bat edukiko du, eta eraikuntzako eta eraisketako hondakinen sorkuntza

impactos ambientales más significativos serán, previsiblemente, la alteración del paisaje y los vinculados al incremento del tráfico pesado derivado de la ampliación de la actividad.

La afección sobre el paisaje de las actuaciones edificatorias contempladas en la Modificación puede ser importante. Esta afección se atenúa, en parte, por que los nuevos edificios se situarán en un entorno inmediato de carácter industrial, pero incrementa su efecto al enmarcase en una cuenca visual de elevado interés paisajístico y, sobretodo, por su cercanía al núcleo urbano de Amezketa y afectar, por tanto,al paisaje cotidiano de sus habitantes.

El EAE estima que el tráfico de camiones aumentará de los actuales 40/día a los 64/día debido a la ampliación de la actividad industrial, lo que supone un incremento del 60%. Dicho incremento se produce en el entorno de un núcleo urbano pequeño y sobre una carretera que no cuenta con otros flujos importantes de tráfico pesado, por lo que los impactos provocados pueden ser significativos, en especial sobre los niveles acústicos y la fluidez del tráfico.

Otro de los aspectos ambientales que condicionan las actuaciones de la Modificación es el elevado riesgo de inundación de gran parte del ámbito ordenado. Si bien las nuevas edificaciones no se sitúan en las zonas más inundables, se trata de un aspecto que debe tenerse en cuenta, tanto para la protección de las personas como para evitar los riesgos ambiéntales derivados de la dispersión de contaminantes.

3. MEDIDAS DE INTEGRACIÓN AMBIENTAL QUE DEBEN AGREGARSE A LA PROPUESTA DEL PLAN O PROGRAMA

La Modificación de las Normas Subsidiarias de planeamiento de Amezketa relativa al AIU 2 Aralarko Papelera, así como su Estudio Ambiental Estratégico, tendrán que incorporar las medidas preventivas y compensatorias que se describen en este apartado. El conjunto de medidas se integrarán en los apartados pertinentes de los documentos que componen el PGOU (Memoria, Planos, etc.). Asimismo, en cumplimiento del apartado 4 del artículo 13 del Decreto 211/2012 por el que se regula el procedimiento de evaluación ambiental estratégica de planes y programas, se deberá elaborar y aprobar un documento, que se remitirá a esta Dirección de Medio Ambiente, en el que se refleje cómo se ha realizado dicha integración.

1. La Normativa urbanística propuesta en el A.I.U. 2 Aralarko Papelera deberá modificarse en los siguientes aspectos:

a. El apartado 6.2. de la ficha urbanística del ámbito Aralar-2 deberá hacer una mención expresa a que, además de cumplir todas las medidas correctoras, protectoras y compensatorias previstas en el Estudio Ambiental Estratégico, la normativa ambiental vigente y las determinaciones recogidas en la Autorización Ambiental Integrada, deberá cumplir las que se establecen en esta Declaración Ambiental Estratégica.

b. Las determinaciones de la ordenación urbanística pormenorizada de la normativa urbanística propuesta en el A.I.U. 2 Aralarko Papelera deberán especificar que las edificaciones de una altura superior a 25 metros solo se podrán autorizar con carácter excepcional, previa justificación que los impactos sobre el paisaje no aumentarán significativamente.

2. Los proyectos de edificación, así como el proyecto de obras complementarias deberá recoger e integrar en su presupuesto las medidas de integración ambiental que sean aplicables para cada uno de ellos. Entre dichas medidas se incluirán las siguientes:

a. Cada uno de los proyectos deberá contar con un estudio de gestión de residuos de construcción y demolición y cumplir con el resto de obligaciones que establece el art. 4 del Decreto

EK\CV GAO-I-2016-05967

eta kudeaketa arautzen duen ekainaren 26ko 112/2012 Dekretuaren 4. artikuluan ezartzen diren gainerako obligazioak ere bete beharko ditu. Produktu bukatuaren biltegiaren proiektuaren kasuan, sortutako lurren bolumenaren azterlan xehatu bat eduki beharko du, hondeaketako materialen kudeaketako planarekin batera. Hondeaketako lurren soberakin bat dagoen kasuan, eta lur horiek obra horretan bertan ezin direnean berriro erabili, balioztateko beste modu batzuk lehenetsiko dira, beste material batzuen ordezko gisa hondakinak erabiltzen dituzten betelaneko obretan adibidez.

b. Pabiloiak eraikitzeko proiektuen idazketa eta izapidetzean, bai lehengaien pabilioaren kasuan eta batez ere produktu bukatuaren pabiloiaren kasuan, hautatutako alternatibaren (1. alternatiba esaten zaionaren) emaitzak hobetuko dituzten fatxadaren tratamenduko irtenbideak bilatzen saiatuko gara ahal izanez gero.

Puntu honi dagokionez, eta produktu bukatuaren pabiloiaren kasurako gutxienez, 3. edo 4. alternatibetako irtenbideak hartuz, alegia pintaketa digitalaren bidezko panelekin egindako tratamendua hobetsiz, lortutako bideragarritasuna eta ikusmen integrazioaren maila aztertzea iradokitzen da, baina pabiloiaren hurbileneko ingurunearekin lotuagoak dauden eta urte osoan zehar aldakortasun kromatiko txikiagoa jasango duten irudiak erabiliz betiere (ordeztera datozen segako larreak izan zitezkeen adibidez).

Beste alde batetik, eremu industriala mendiz inguratutako haran sakon batean kokatua egoteak, eraikinen estalkia bera lauagoak diren beste topografia motak dauzkaten zonetan baino askoz ere ikusgaiagoa izatea dakar, eta horrek estalkientzako ere ikusmen integrazioko neurriak onartu behar izatera garamatza.

Era berean, eta kontuan hartuz pabiloi berriak Amezketako biztanleen eguneroko paisaiaren osagai garrantzitsua izango direla, behin betiko alternatibaren hautaketa-prozesuan udalerriko herritarren iritzia jasotzeko aukera ere gomendatzen da, inkesten bidez, kontsulten bidez edo herritarren parte hartzeko bestelako prozeduren bitartez.

3. Azterlan akustikoa. Esparru industrialak hiri ingurunerantz igorritako zarataren jarraipeneko programa bat definitu eta aplikatuko da. Ingurumen Baimen Integratuak ezartzen duen bezala, enpresak baldintza akustikoak kontrolatzeko neurketak egin beharko ditu partzelaren kanpoaldean, zarata etxebizitzetara transmititzeko dagoen zonarik okerrenean hain zuzen ere. Eta datu horietatik, edo beharrezkotzat jotzen diren beste neurketa batzuetatik abiatuz, Aldaketan aurreikusitako jarduketek bere inguruneko kalitate akustikoan izandako eragina baloratuko da, kalitate akustikoko helburuen betetze-maila egiaztatuko da eta, helburuak ez direla betetzen edo baldintza akustikoek nabarmen okerrera egin dutela sumatuko balitz, soinu-igorpenak murrizteko plan bat ezarriko da.

4. Lurzoru kutsatuak. Hirigintzako Antolaketa xehatuko zehaztapenetako 9.3. atala, «Lurzoru kutsatuei buruzkoa», eguneratu eta zehaztuko da, lurzoruaren kutsadura prebenitu eta zuzentzeko ekainaren 25eko 4/2015 Legetik eratorritako obligazioek bertan erreferentzia izan dezaten. Obligazio horien artean, aipatzeko modukoa da ezen Lege horretako 23. artikuluan begietsitako zirkustantziaren bat gertatzen den kasu guztietan, esate baterako, jarduera bat handitzea edo jarduera edo instalazio potentzialki kutsatzaile bat barne hartzen duen edo hartu izan duen kokaleku batean lur-mugimenduak egitea, lurzoruaren kalitateari buruzko ikerketaren bat egin beharko da beti, eta amaiera gisa Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailburuordetzak lurzoruaren kalitateari buruzko Adierazpen bat emango du. Era horretan, inbentariatutako kokaleku batean edozein jarduketa edo esku-hartzeri ekin aurretik, lurzoruaren kutsadurarekin lotutako arriskurik ez dagoela pertsonentzat bermatuko duen lurzoruaren kalitateari buruzko ikerketa bat egin dadila eskatu beharko da ezinbestean, eta baita bertan behera utzitako hondakinen, eraikinen eta hondeatu beharreko partzela posibleen kudeaketa egokia ere, indarrean dagoen legeriak hondakinei buruz xedatutakoaren bidetik.

112/2012, de 26 junio, por el que se regula la producción y gestión de los residuos de construcción y demolición. En el caso del proyecto del almacén de producto terminado, deberá contar con un estudio detallado del volumen de tierras generado y un plan de gestión de los materiales de excavación. En el caso de que exista un sobrante de tierras de excavación y éstas no se puedan reutilizar en la propia obra, se priorizarán otras formas de valorización, por ejemplo, en operaciones de relleno que utilicen residuos como sucedáneos de otros materiales.

b. En la redacción y tramitación de los proyectos de edificación de los pabellones, tanto el de materia prima como, en especial, el de producto terminado, se tratará de buscar soluciones de tratamiento de fachada que, a ser posible, mejoren los resultados de la alternativa seleccionada (la denominada alternativa 1).

A este respecto, se sugiere que al menos para el almacén de producto terminado, se analice la viabilidad y el grado de integración visual obtenido mediante la adopción de las soluciones de las alternativas 3 o 4, es decir, el tratamiento de paneles mediante pintado digital, pero con motivos más acordes con el entorno inmediato del pabellón y que imiten espacios que sufran una menor variabilidad cromática a lo largo del año, como puede ser los prados de siega a los que sustituye.

Por otra parte, la situación de área industrial en un fondo de valle rodeado de montañas hace que la propia cubierta de las edificaciones sea mucho más visible que en zonas con topografías más llanas, lo que obliga a adoptar medidas de integración visual también para las cubiertas.

Asimismo, considerando que los nuevos pabellones constituirán un elemento importante del paisaje cotidiano de los habitantes de Amezketa, se aconseja que se analice la posibilidad de incorporar la opinión de los ciudadanos del municipio en la selección de la alternativa definitiva mediante encuestas, consultas u otros procedimientos de participación ciudadana.

3. Estudio acústico. Se definirá y aplicará un programa de seguimiento del ruido emitido por el recinto industrial sobre el entorno urbano. Según establece la Autorización Ambiental Integrada, la empresa debe contar con mediciones de control de las condiciones acústicas en el exterior de la parcela en la zona más desfavorable desde el punto de vista de la transmisión de ruido a las viviendas. A partir de dichos datos, o de otras mediciones que se consideren necesarias, se valorará el efecto que ha tenido las actuaciones previstas en la Modificación sobre la calidad acústica de su entorno, se verificará el cumplimiento de los objetivos de calidad acústica y, en caso de que se detecte el incumplimiento de los objetivos o un empeoramiento significativo de las condiciones acústicas, se establecerá un plan de reducción de emisiones sonoras.

4. Suelos contaminados. Se actualizará y concretará el apartado 9.3. «Suelos contaminados» de las Determinaciones de Ordenación Urbanística pormenorizada, de modo que haga referencia a las obligaciones derivadas de la Ley 4/2015, de 25 de junio, para la prevención y corrección de la contaminación del suelo. Entre ellas, la de que siempre que se dé alguna de las circunstancias contempladas en el artículo 23 de dicha Ley, como la ampliación de una actividad o la ejecución de movimientos de tierras en un emplazamiento que soporte o haya soportado una actividad o instalación potencialmente contaminante, se deberá proceder a la realización de una investigación de la calidad del suelo, que concluirá con la resolución de una Declaración de la calidad del suelo emitida por la Viceconsejería de Medio Ambiente del Gobierno Vasco. De esta forma, antes de que se proceda a cualquier intervención sobre un emplazamiento inventariado, será necesario exigir la realización de una investigación de la calidad del suelo que garantice que no existen riesgos asociados a la contaminación del suelo para las personas, así como la gestión adecuada de los residuos abandonados, edificaciones y posibles tierras a excavar de acuerdo a la legislación vigente en materia de residuos.

EK\CV GAO-I-2016-05967

5. Natura 2000 Sarearen gaineko afekzioa konpentsatzea. Dela produktu bukatua biltegiratzeko eraikinaren proiektuaren bidez, dela obra osagarrien proiektuaren bidez, edo baita proiektu espezifiko baten bidez ere, Aralarko kontserbazioko helburuek jasandako afekzioa konpentsatzen saiatu beharko da, KBZren Kontserbazioko Arauen 162 zk.ko erregulazioari jarraituz. Ondorio horietarako, hurrengo helburu operatiboen gain jardungo da: 3.3. Besterik ezean, altitude txikiko sega-larre pobreen 250 ha mantentzea eta/edo 3.4. Landa-paisaiaren heterogenotasun espaziala eta egitura-mailako aniztasuna mantentzea. Asmo horrekin, aipatu proiektuek ondorengo neurrietako bat, gutxienez, eduki beharko dute:

* «Altitude txikiko sega-larre pobreak (UE 6510 kodea)» habitataren azalera bat ezarri eta horri eustea, antolatutako eremuan edo hortik kanpora, dela zuzenean edo dela mantentze kontratuen bidez, eta berorren kalitatea bermatuz betiere, KBZren Kontserbazioko Arauen 74. zk.ko erregulazioan ezarritako tratamenduak aplikatuz.

* Landa-paisaiaren heterogenotasun espaziala eta egitura-mailako aniztasuna hobetzea, partzelaren mugako zuhaiztiak heskaiekin eta/edo harrizko murruekin osatuz produktu bukatuaren biltegiaren inguruan (10 zk.ko neurri konpentsatzailea), aipatutako eraikinaren hegoaldera geratzen den soberako espazio osoan zehar. Tokiko genotipoak dituzten landareak erabiliko dira horretarako, eta lau metrotik gorako altuera eta zabalera hartzera irits daitezkeen heskaiak diseinatuko dira, hainbat eratakoak, beste heskai edo zuhaizti batzuekin kontaktatzeraino, ahal izanez gero.

4. INGURUMEN JARRAIPENEKO PLANA

Ingurumena Zaintzeko Programa (IZP) aldatu edo/eta osatu egin beharko da, jarraian deskribatzen diren alderdietan:

1. Ingurumena Zaintzeko Programak zehaztasun-maila handiagoarekin definitu beharko ditu Programan jasota dauden jarraipeneko eta kontroleko ataza bakoitza egikaritzeko erantzukizunak eta horiek finantzatzeko ardurak. Puntu honi dagokionez, adierazi beharra dago ezen ingurumeneko ebaluazioko araudiaren arabera, Amezketako Udalari dagokiola, Aldaketaren organo sustatzailea den heinean, Ingurumena Zaintzeko Programa egikaritzeko erantzukizuna. Beste alde batetik, eta Aldaketaren izaera bera dela medio, jarduera industrial bakar batek okupatutako eremua afektatzen duenez eta jarduera hori handitzearekin zuzenean lotua dagoenez, enpresaren parte-hartzea behar-beharrezkoa gertatzen da. Edonola izanik ere, erakunde bakoitzak onartuko duen Zaintzeko Programaren atazak eta eginkizunak argi eta garbi islatuak geratu behar dute. Horrez gain, argi geratuko da zein izango den Programan aipatzen diren jarraipeneko txosten desberdinak, hala nola baita Gipuzkoako Foru Aldundira igortzeko konpromisoa duten IZPko dokumentuak ere ¡dazteko ardura duen pertsona edo erakundea.

2. Ingurumena Zaintzeko Programa aplikatuz, Amezketako Udalak ondorengoak egin beharko ditu:

— Dagozkion lizentziak izapidetzearen bidez, antolatutako eremuan prestatuko diren eraikuntza eta urbanizazioko proiektu bakoitzean egokiak eta beharrezkoak diren ingurumeneko integrazio neurriak hartu direla egiaztatzea.

— Agindutako lanak eta obrak, batetik, eta baita ingurumeneko integrazio neurriak ere, bestetik, aurreikusitako proiektuaren arabera ari direla egikaritzen egiaztatzea, bai zuzenean edo baita beharrezkotzat jotzen dituen ziurtapenen bidez ere.

— Jarraipena egiteko beharrezkotzat jotzen dituen datuak eta txostenak jardueraren titularra den enpresari eskatzea.

3. Ingurumeneko jarraipena egiteko adierazleen proposamena hobetu beharra dago, izan ere orain arte proposatutakoekin nekez egin baitaiteke aldaketaren ingurumeneko eraginen jarraipena.

5. Compensar la afección sobre la Red Natura 2000. Bien a través del proyecto de edificación de almacén de producto terminado, bien a través del proyecto de obras complementarias o bien a través de un proyecto específico, se tratará de compensar la afección producida sobre los objetivos de conservación de Aralar, acuerdo con la regulación n.º 162 de la Normas de Conservación de la ZEC. A estos efectos se contribuirá a los objetivos operativos 3.3. Mantener al menos 250 ha de Prados pobres de siega de baja altitud y/o 3.4. Mantener la heterogeneidad espacial y la diversidad estructural del paisaje de campiña. Con este fin, los mencionados proyectos deberá incluir, al menos, alguna de las siguientes medidas:

* Establecer y mantener una superficie del habitat «Prados pobres de siega de baja altitud (CodUE 6510)» en el ámbito ordenado o fuera del mismo, bien directamente o bien mediante contratos de mantenimiento, garantizando su calidad mediante la aplicación de los tratamientos establecidos en la regulación n.º 74 de las Normas de Conservación de la ZEC.

* Mejorar la heterogeneidad espacial y la diversidad estructural del paisaje de campiña, completando el arbolado de límite de la parcela en el entorno del almacén de producto terminado (medida compensatoria n.º 10), con setos vivos y/o muros de piedra a lo largo del espacio remanente al sur del mencionado edificio. Se utilizarán plantas de genotipos locales y se diseñarán setos que puedan alcanzar una altura y anchura superior a cuatro metros, que sean diversos y que, a ser posible, contacten con otros setos o bosquetes.

4. PLAN DE SEGUIMIENTO AMBIENTAL

El Programa de Vigilancia Ambiental (PVA) deberá modificarse y/o completarse en los aspectos que se describen a continuación:

1. El Programa de Vigilancia Ambiental debe definir con una mayor precisión las responsabilidades de ejecución y financiación de cada uno de las tareas de seguimiento y control recogidas en el Programa. A este respecto, debe señalarse que conforme a la normativa de evaluación ambiental corresponde al Ayuntamiento de Amezketa como órgano promotor de la Modificación, la responsabilidad de ejecutar el Programa de Vigilancia Ambiental. Por otra parte, el carácter de la Modificación, que afecta a un ámbito ocupado por una única actividad industrial y que se vincula de manera directa con la ampliación de dicha actividad, hace necesaria la participación de la empresa. En cualquier caso, las tareas y funciones del Programa de Vigilancia que asumirá cada entidad deberán quedar claramente reflejadas. Asimismo, debe concretarse la persona o entidad responsable de redacción de los distintos informes de seguimiento a que hace referencia el Programa, así como de los documentos que el PVA se compromete a remitir a la DFG.

2. En aplicación del Programa de Vigilancia Ambiental, el Ayuntamiento de Amezketa deberá.

— Verificar a través de la tramitación de las licencias correspondiente la incorporación de las medidas de integración ambiental que sean pertinentes en cada uno de los proyectos de edificación y urbanización que se elaboren en el ámbito ordenado.

— Comprobar, bien directamente o bien mediante la exigencia de las certificaciones que considere necesarias, la ejecución de las obras conforme al proyecto previsto, así como el cumplimiento de las medidas de integración ambiental.

— Solicitar a la empresa titular de la actividad los datos e informes que considere necesarios para realizar el seguimiento.

3. Debe mejorarse la propuesta de indicadores de seguimiento ambiental, ya que los propuestos difícilmente permiten realizar el seguimiento de los efectos ambientales de la modificac3ión.

Bide horretatik, hurrengoak aztertzea iradokitzen da:

— Trafikoaren intentsitatearen eboluzioa: trafiko orokorrarena, baina bereziki ibilgailu astunena.

— Baldintza akustikoen eboluzioa, partzelaren kanpoaldean, Ingurumen Baimen Integratuan edo komenigarritzat jotzen diren beste batzuetan eskatutako kontroletan lortutako datuetatik abiatuz.

— Instalazio industrialak, bere osotasunean, paisaian duen integrazioa neurtzeko adierazle motaren bat.

Hau guztia denen jakinaren gainean jartzen da».

Donostia, 2016ko abuztuaren 12a.—Lourdes Sanjuán Artegain, idazkari teknikoa. (5967)

Se sugiere estudiar las siguientes:

— Evolución de la intensidad del tráfico: tanto general como, en especial, de vehículos pesados.

— Evolución de las condiciones acústicas en el exterior de la parcela, a partir de los datos obtenidos de los controles exigidos en la Autorización Ambiental Integrada u otros que se consideren convenientes.

— Algún tipo de indicador de integración paisajística del conjunto de la instalación industrial.

Lo que se publica para conocimiento general».

San Sebastián, a 12 de agosto de 2016.—La secretaria técnica, Lourdes Sanjuán Artegain. (5967)

EK\CV GAO-I-2016-05967